

Elixabete Garmendia Lasa

Filosofo miatzailea

Joxe Azurmendik utzi duen legatu erraldoi eta aberatsa hain da baliagarria, apenas daukan baztertzeko zipitzik ere. Kontrastean, bere idatzietan sarri ageri dira nahi-eta-ezinak, gizarte menostua, txirotasuna... Lerro horri heltzen dio paradigmaticoa den poema ezagun honetan.

Gure herriak ez dauka kondairarik.
Pobrea da. Ez dauka
pirata koxkor pare bat
langile sofritu batzuk,
muga zentzugabe asko,
mila zorigaitzo
besterik. Ez da gutxi.

Azurmendiren *Manifestu atzeratua* (1968) poemak errotik harrapatu ninduen gatzetxotan. Hasteko, ez zeukan inolako zerikusirik eskolan irakasten ziguten *Historia de España*-rekin; hurbilago zegoen etxean ahapeka kontatzen ziguten 1936ko gerraren desmasietatik. Izan ere, Azurmendik gure herriaren ezak eta eskasiak, zuloak bete beharra azpimarratzen zituen, alegia. Zuloak bete, duintasun guztiz. Tartean, naturak zekarren kolosoa kontuan hartuz: «Aizkorri aurpegi bat da, alaia, gaiztoa, kanbiatzen dena, nagusi handi baten edo izaki mitologiko baten antzera gure arimaren zoruan grabatuta daramaguna». Hori zioen *Zegama Urtekaria*-n 2011n idatzi zuen artikulua honetan: 'Nire Zegama neure barruko Zegama da'. Filosofo eta idazleak egiten duen Aizkorriren deskripzioak erantsita daramatza umetatik gertu izan zuen erraldoiak eragiten zizkion sentipenak, pozetik beldurrerainoko arrapaladan.

Herrira jaitsita, Zegamako elizak ezaugarri duen Tomas Zumalakarregiren hilobi erraldoiarekin egiten du topo Azurmendik.

Zumalakarregi? Tonto baten moduan
hil zitzaigun azkenean hura ere.

Zumalakarregik, Bilbon zauritua izan ondoren, Ormaiztegiko bere etxean kokatzea baino nahiago izan zuen herrian zeukan anaia apai-zarengandik ihes egin eta Zegaman bizi zuen arrebaren etxean aterpetu, Mazkiaran Barrena etxe ederrean. Han hil zen, eta hilobi galanta eraiki zioten elizan.

Preso daukagu orain Zegamako elizan
berpizt ez dakigun,
esan ez dakigun bala batek
asesinatu zuela libertadea.

Azurmendik Zumalakarregiren hilketa-heriotza askatasunaren galera-rekin lotzen du; liderraren falta, hura galdu izana. Denboran aurrera eginda, honela erretratatzan du XX. mendeko euskal gizartea:

Gure jendea pobrea da, trixtea da.
Gure jendea ez da poesia batean kabitzen.
Gure jendea ona da. Kulpa gabe
hiltzen da, handitasunik gabe
bizi da, sekretuan maite du
(tabuak errespetatzen ditu),
errezatzen du (tradizionalista da)
engainatu egin dute,
ez da asko fidatzen. Gure jendea
bulgaridade hutsa da.
Inpresionistek bakarrik pintatu dute.
Edozein etnologoren armario batean
dago, eskuliburu batean
deskribatzen da.

Hamar urterekin –1951ko irailean– sartu zen Azurmendi Arantzazu-ko frantziskotarren komentuan, bere aitaren haserrearen gainetik. Foruan bi urte pasatu eta gero, berriro itzuli zen Arantzazura, 1960an. Ordurako aldaketa bizian zegoen Oñatiko auzoa.

Zorte izugarria izan nuen, garai hartan Arantzazu kulturgune ikaragarria zen-eta. Eliza berria egiten ari ziren arkitektoak, artistak (Oteiza, Txillida, Lucio Muñoz, Basterretxea, Eulate...) eta idazleak (Gandiaga, Aresti, Blas de Otero...) ezagutzeko parada izan nuen. Eta, noski, euskal kulturaren lanean zebiltzanak ere bai: Villasanté, Gandiaga, Eugenio Agirretxe, Kandido Izagirre. JAKIN aldizkaria ere han egiten zen, eta beste euskaltzale askoren bilgunea zen Arantzazu. ('Eginkizun probidentzial bat bete du Arantzazuk', *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-05-20)

Arantzazuren birgaitzea gertutik eta sakon bizi izan zuen zegamarrak. Dena dela, mundua ez zitzaion hor bukatu. Ezta bere jardun filosofiko eta soziala ere. Azurmendik jakinduriaren oparia utzi dio bere Herriari.